

El Campello-ko uharri artifizialak.

El Campelloko babes naturala, mediterranean kostaldeko leku gehienetan bezala, Posidonia belardiek osatzen dute.

Posidonia bedaxken artean, animalia espezie ugari non babestu eta zer jan aurkitzen dute, batez ere arrainek. Horrela, fanerogamo belardiak desagertzen direnean, itsas hondoa progresiboki lu gorri bihurtzen da.

Forma eta tamaina desberdineko betoizko blokeen ezarpenak egoera hau arindu eta itzuli nahi du.

Uharri artifizial gisa, betoizko pieza hauek funtzio ezberdinak betetzen dituzte: batzuk olatuen oldarrari aurre egiteko diseinatuak dira, eta beste batzuk, arrainei babes eta erruteko lekua eskaintzen diete. Horrela, arrainak bloke hauek ezarri dituzten lekura joaten dira.

Baina uharri artifizial hauen betekizun nagusia arrasteontziak uxatzea da, 50 metro baino gutxiagoko sakoneran, legez kanpo, arrantzan jardun ez dezaten.

Arraste arrantzarako sareek, espezieak eta harrapatutako aleen neurriak ez bereizteaz gain, landareak erauzten dituzte, eta suntsitzaileak dira oso belardi hauskorrentzat, eta ondorioz, baita bertan bizi diren organismo guztientzat ere.

Uharri artifizialak babes neurri ohiko bihurtu dira Espainiako kostalde osoan. Apustu hau egin dute Valentziar erkidegoa eta bereziki Alacanten.

Baina betoizko blokez osatutako uharriek beste betekizun bat ere badute, hainbat espeziaren habitat egokia dagoeneko suntsitua izan den tokietan.

Eraikuntza artifizialak izan arren, betoia, uharrien oinarria, material egokia da alga eta belakiak bezalako epifitoz kolonizatua izateko.

Kolonizazio abiadura eta bertan kokaleku berria hartzen duten espezieak, arretaz erregistratzen dira uharri artifizial hauen dinamika ondo ezagutzeko.

Egun gutxitara, lehenengo epifitoak eta espezie bentonikoak agertzen dira elikagaia aurkitzen duten tokietan; estaldura osoa nahiko azkarra izango da, inguruko baldintza fisiko kimikoen arabera, hau da, substratu naturalak izango balira bezala. Aldiro biozenosia anitz eta konplexuago bihurtuko da.

Denbora gutxian ia sumaezina da betoia. Blokeen ertzak biribildu egin dira eta gainazalak ehundura organikoa du. Sare trofikoek estalita, jada ez da ia bere izaera minerala antzematen. Bizitza jabetu da uharriez.